



---

**EBAZPENA, IKASTETXE ETA PLANGINTZAREN ZUZENDARIARENA. HORREN BIDEZ EIO-REN (EUSKADIKO IKASLEEN ORKESTRA) FUNTZIONAMENDU-ARAUAK EZARTZEN DIRA, ETA 2021/22 ETA 2022/23 IKASTURTEETARAKO PROIEKTUAK AURKEZTEKO ETA HAUTATZEKO PROZESUA ARAUTZEN DA.**

---

Musikako instrumentu-espezialitateen irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak izaera indibiduala du, nahitaez. Hori dela eta, irakaskuntza horien curriculumean musika-jardunaren pertsona bakarreko osaera horretatik baino harago doazen irakasgaiak sartu behar dira. Oro har, praktika indibidual horrek teknika konplexu bat eskuratzea eta musika-ezagutzei buruzko prestakuntza mailakatua izatea esan nahi du. Baina, horrez gain, prestakuntzak, nolabait, musikaren esparruko gizarte-harremana eta elkartrukea barne hartu behar ditu.

Ildo horretan, orkestra musika-adierazpenaren eta ikasleen giza harremanen gune nagusia da. Bertan, prestakuntza-gaitasunak, funtsezkoa izanik, musikaz harago doa, eta lehen mailako hezkuntza-elementu bihurtzen da.

Sailaren titulartasuneko kontserbatorioetarako ikasturte-hasierako urteko ebazpenean zehazten denez, EIOk (Euskadiko Ikasleen Orkestra) osatzen du Hezkuntza Sailaren hezkuntza-proiektu bat, orkestra sinfonikoaren formatua duen talde instrumental bat dena eta Euskal Autonomia Erkidegoko 19 urte arteko musika-irakaskuntzako ikastetxeetako ikasleek osatzen dutena.

Hezkuntza-proiektu honen bidez, ikasleak musika-prestakuntzan estimulatu nahi dira eta beren prestakuntza pertsonala osatzen lagundu nahi zaie; halaber, Araubide Bereziko irakaskuntzetako ikasleek egindako ahalegina eta Hezkuntza Sailaren mendeko MKPetan nahiz EAEko baimendutako ikastetxeetan eta musika-eskoletan ematen den kalitatezko irakaskuntza ezagutarazi nahi dira (289/1992 Dekretua, urriaren 27koa).

Proiektu hori honela betetzen da: EAEko aurrekontu orokorretan urteko partida espezifiko bat esleituz, eta koordinatzaile nagusiaren, koordinatzaileondokoaren eta musika-zuzendariaren lanpostuak bere gain hartzen dituzten lau irakasleren ordutegi-liberazio partzialaren bidez.

Ebazpen honen xedea da EIOren helburuak eta funtzionamendua arautzea, bai eta Hezkuntza Sailaren titulartasuneko hiru musika-kontserbatorio profesionali dei egitea ere, 2021/22-2022/23 bi ikasturteetarako proiektuak aurkez ditzaten, EIOri jarraipena ematea eta sendotzea ahalbidetzeko.



## 1. EIO PROIEKTUAREN HELBURUAK

2005ean abian jarri zenetik, honako hauek dira EIO proiektuaren lan-ildo nagusiak:

- Erreferentziazko orkestra bat sortzea Euskal Autonomia Erkidegoko musika-irakaskuntzako ikastetxeentzat.
- Ikasleentzat eta, oro har, publikoarentzat erakargarria eta hezigarria izango den kontzertu-programa bat egitea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko musika-irakaskuntzako ikastetxeetan egindako lanaren erakusleihu izatea, sinergia positiboa sortzen baitu ikasleak erakartzeko eta musika-talentu gazteak sustatzeko.
- Motibazio-elementu izatea bai EAEn musika-ikasketak egiten dituzten ikasleentzat, bai Hezkuntza Sailaren titulartasuneko Bilboko Juan Crisostomo Arriaga, Gasteizko Jesús Guridi eta Donostiako Francisco Escudero kontserbatorioetako irakasleentzat.
- Goi-mailako ikaskuntza-esparrua eskaintzea, ikasleek orkestra batek eskaintzen dituen estilo- eta interpretazio-ezagutzetan sakondu ahal izan dezaten.

Ikasturtean zehar eta bakoitzak bere ikastetxean, ikasleek ezin dute parte hartu benetan plantilla sinfonikoa izatera iristen diren taldeetan; beraz, ezin dute horrelako erreperitorioik landu benetako egoera batean. Ikastetxeetako orkestrek, sarritan, gabeziak izaten dituzte atalen batean.

- Parte hartzen duten ikasleak egungo problematika ulertzen duen eta hura partekatzen duen kolektibo batean integratzen laguntzea, problematika hori berea delako. Hori, berez, pizgarria da ikasketetan. Horrek orkestra-talde bateko bizikidetzak eskatzen dituen arauak baloratzen lagunduko die ikasleei, beste kide bat bezala integratuz eta esleitzen zaizkien erantzukizunak hartuz.
- Orkestra praktikaren errespetua sustatzea, etorkizuneko jarduera profesionalerako ezinbesteko ikaskuntza-prozesu gisa.
- Praktika instrumental horren emaitzak jendaurrean erakustea, eta beste talde gazte batzuekin trukeak egitea sustatzea.

## 2. JARDUEREN PROGRAMA

Urriaren 6a baino lehen, koordinatzaile nagusiak, kudeaketaz arduratzen den Kontserbatorioko Zuzendaritzaren bidez, jardueren programaren proposamen bat bidaliko dio Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari, hurrengo ikasturterako.

Proposamen horretan, dokumentazio hau jasoko da:

1. Hurrengo ediziorako proposatutako jarduerak.
2. Proiektuaren helburu zehatzen azalpena eta parte-hartzaileengan eta inplikaturako beste kolektibo batzuegan (ikasleak, irakasleak, hezkuntza-komunitatea, etab.) espero den eragina.
3. Egin beharreko lanaren metodologia (lan-plana).



4. Jardueren programak beste orkestra gazte batekin trukea barne hartzen badu, beste orkestra horri buruzko informazioa, bai eta proiektuan parte hartzen duten ikasleen jarduera-programa ere, trukea egin aurretik, bitartean eta ondoren.
5. Lortzea espero den azken produktua
6. Proiektua ikasleen ohiko jardueretan eta Ikastetxearen Plan Orokorrean integratzea, eta curriculumeko arloak inplikatzea
7. Gauzatze-aldia
8. Gutxi gorabeherako aurrekontua eta finantzatu daitezkeen kontzeptuak (garraioa, otorduak, aseguru-polizak, proiektua egin, ebaluatu eta zabaltzearen ondoriozko gastuak).
9. Proiektuan zuzenean edo zeharka parte hartzen duten irakasleak eta departamentuak.
10. Ikasleak: instrumentu bakoitzeko plaza-kopurua.
11. Nola ebaluatuko den proiektua eta zer eragin izango duen inplikaturako kolektiboetan.
12. Esperientziaren emaitzak eta azken produktuak nola ezagutaraziko zaizkien inplikaturako erakundeei eta tokiko komunitateari

Hezkuntza Sailaren mendeko kontserbatorioetako zuzendaritzek konpromisoa hartuko dute aurreko memorian azaldutako jardueretan parte hartzeko eta laguntzeko, eta proiektuaren berri emango diete klaustroari eta OOGari.

## **1. Fasea: ikasleak sartzeko eta hautatzeko proba**

### **Parte hartzeko betekizunak**

EIOko kide izan ahalko dira honako baldintza hauek betetzen dituzten ikasleak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko musika-irakaskuntzako ikastetxeetan ikasten ari diren ikasleak (Hezkuntza Sailaren mendeko MKPak, behar bezala baimendutako ikastetxe arautuak, eta urriaren 27ko 289/1992 Dekretuaren bidez araututako EAEko musika-eskolak).

- Sartzeko probetan berdinketa gertatuz gero, lehentasuna emango zaie Hezkuntza Sailaren mendeko MKPetako batean ikasketak egiten ari diren ikasleei.

Salbuespen gisa, plazaren bat hutsik geratuz gero, Nafarroako Foru Komunitateko hautagaiak onartu ahal izanzen dira, baldin eta egiaztatzen badute Komunitate horretako behar bezala baimendutako zentroetan musika ikasketak egiten ari direla.

- Izena ematea Ikasgunearen bidez, dagokion deialdian ezarritako epean.

- Zehaztuko den onarpen-proba gainditzea.



- Gehienez 19 urte izatea deialdia argitaratzen den egunean. Plazak bete ezean, salbuespenak egin ahal izango dira adinari dagokionez, eta lehentasuna izango dute 19 urtetik beherakoek.

- EIOra sartzeko azterketa-eskubideen kontzeptuan ezartzen den zenbatekoa ordaintzea.

1.- Musika Kontserbatorio Profesionaletan antolatutako lehiaketa eta proba instrumentaletako matrikulen prezio publikoak<sup>1</sup> honako hauek izango dira:

- Banakako lehiakide gisa: 20,00 euro.

2.- Matrikula formalizatzen den unean ordainduko da prezio publiko horren zenbatekoa.

3.- Ordainketa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuan aurreikusitako modalitateen bidez egin ahal izango da, eta kreditu-erakunde laguntzailearen bitartekotza baliatuz .

Ezingo da inolako kontraturik egin EIO taldeko kide gisa postuak betetzeko.

Hautagaiek ezarritako epean aurkeztu beharko dute eskabidea, eta onarpen-proba esleitu zaien lekuan, egunean eta orduan egin beharko dute.

- Onarpen-probak presentzialak izango dira, eta hautagaiek honako hauek interpretatu beharko dituzte:

- Norberak aukeratutako obra edo obra-zati bat (gehienez 10 minutu)
- Programatutako orkestra-errepertorioaren zatiak. Derrigorrezko obra interpretatzeko, instrumentu-jotzailea piano-jotzaile propio batekin aurkeztu ahal izango da, baina hala jakinarazi beharko du aurrez izena emateko unean. Nolanahi ere, ez da izango epaimahaiak baloratzeko moduko irizpidea.

- Probak 15 minutu iraungo du gehienez, eta hautagai bakoitzak bere instrumentuarekin egin beharko du.

- Ez da entsegurik izango entzunaldiaren aurretik, ez pianistarekin, ez bakarkakoak, baina beroketa-gela bat izango da parte-hartzaileentzat.

- Parte-hartzaile bakoitzak esleitu zaizkion leku, egun eta ordura joan beharko du. Parte-hartzailearen batek esleitutako egunean eta orduan ezin badu bere entzunaldia egin gerora sortutako eta modu frogagarrian justifikatutako arrazoiengatik (gaixotasuna, istripua edo beste batzuk), epaimahaiak beste egun eta ordu bat esleitu ahal izango die proba horiek egiteko, baldin eta horrek hirugarren bati kalterik eragiten ez badio eta dagokion epaimahaia berriz eratu badaiteke.

- Entzunaldiak publikoak izango dira, instalazioen edukierak ahalbidetzen duen neurrian. Ezin izango da entzunaldien grabaziorik egin inolako euskarritan.

---

<sup>1</sup> Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak ezartzen dituen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko uztailaren 10eko Aginduaren testu bateginaren 8. artikulua.



- Sarbide-proba ebaluatzeko, espezialitate bakoitzerako epaimahai kalifikatzaileak eratuko dira. Epaimahai horiek, gutxienez, hiru irakaslek eta haien ordezkoeak osatuko dituzte, eta Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendaria izendatuko ditu, koordinazioaz arduratzen den MKPko Zuzendaritzak egindako proposamena entzun ondoren.
- Ikasturteko lehen hiruhilekoan, onarpen-probak baloratuko dituzten epaimahaien osaeraren berri emango da EIOren webgunearen bidez, bai eta plazen eta tresnen eskaintzaren berri ere, eta eskabideak aurkezteko epea irekiko da, aipatutako MKPren webgunearen bidez.
- Epaimahaietako kideek ezin izango dute epaimahaikide izan Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28. artikuluan aurreikusitako inguruabarrak gertatuz gero, eta Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari jakinarazi beharko diote. Halaber, hautaketa-epaimahaietako kideak errekusatu ahal izango dituzte izangaiek, lege horren 29. artikuluan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen badira.
- Epaimahai kalifikatzaileak ebaluazio-irizpideak jasoko ditu dagokion aktan, bai eta parte-hartzaile bakoitzari emandako puntuazioa ere.
- Onarpen-probak abendutik urtarrilera bitartean egingo dira, eta onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda osatuko da. Parte-hartzaileek erreklamazioa aurkezteko eskubidea izango dute eta, ondoren, behin betiko zerrenda ezarriko da. Gainera, erreserbako plazen zerrenda bat egongo da. Zerrenda horiek ikasgunearen bidez kontsultatu ahal izango dira, baita EIOren webgunean ere. Hala ere, ezohiko probak deitu ahal izango dira, programazioaren beharren arabera.

## **2. Fasea: Topaketak**

- Topaketak prestakuntza-jarduera arruntan aldiak izango dira, hau da, EIO osatzen duen taldea bilduko den laneko aldiak errepertorio espezifikoko sinfoniko bat prestatzeko, bakarka edo batera, jardueren programan ezarritako programa betez. Programako kideak nahitaez bertaratu behar dira.
- Ahal dela, topaketak eskola-garaikoak ez diren aldietan egingo dira, azterketa akademikoen aldiak errespetatuz; nolana ere, noizbait egin ahal izango dira, interes musikal edo artistiko bereziko programa bat prestigio handiko musika-zuzendariren batekin interpretatzeko aukera sortzen bada, edo beste aldi batzuetan gertatzen den eta garrantzi berezia duen jaialdi, ziklo edo espazio eszenikoren baten esparruan.
- Topaketen kopurua eta iraupena jardueren programan jaso beharko dira. Nolanahi ere, topaketak amaitzeko, kontzertu bat edo batzuk egin beharko dira, jarduera programan ezarritakoaren arabera.
- EIOren entzunaldiak gainditzen dituen ikaslea dagokion edizioaren ikasturtean zehar sartuko da bertan, eta horretarako aurreikusitako laneko aldietara joateko konpromisoa hartuko du.



Edizio bakoitzean egiten diren topaketa guztietara joatea nahitaezkoa da erreperitorioaren beharren arabera zehazten diren parte-hartzaile guztientzat. Betebehar hori justifikaziorik gabe betetzen ez bada, ikasleak plaza galduko du:

- Entsegu partzialak edo atalka egindakoak, irakasle espezialisten eskutik.
  - Entsegu orokorrak.
  - Kontzertu publikoak.
- Plazaren bat bete gabe geratuko balitz, erreserba-zerrendako parte-hartzaileei zerrendaren hurrenkera zorrotzean deituko zaie, proposatutako erreperitorioko instrumentu bakoitzeko kopuru-premien arabera.
- EIOko kide baten egonaldia urtebetekoa izango da, eta gehieneko adinera arte luzatu ahal izango da, urteko entzunaldien bidez.
- Jardueren programa amaitutakoan, ikasleek Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariaren akreditazioa jasoko dute, EIOko instrumentista gisa parte hartu dutela ziurtatuz.

### 3. GIZA BALIABIDEAK

EIO proiektua irekita dago Hezkuntza Sailaren mendeko hiru kontserbatorio profesionaletako irakasleentzat, eta irakastorduetatik liberatzeko 18 ordu ditu guztira, honela banatuta:

#### **EIOren koordinatzaile nagusia:**

- EIOren koordinatzailea Hezkuntza Sailaren titulartasuneko hiru kontserbatorioetako bateko irakaslea izango da.
  - Bi ikasturterako izendatuko dute karguan, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariaren ebazpen bidez, Hezkuntza Sailaren mendeko hiru MKPek aurkeztutako proposamenak entzun ondoren. Irakasleak ez badu behin betiko plazarik hiru MKPetako batean, izendapenak ikasturte bakar bateko indarraldia izango du.
  - 9 orduko liberazioa izango du. Erakunde osoaren arduraduna izango da, eta gai guztiei buruzko erabakiak hartzeko ahalmena izango du, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariak onartu ondoren.
- Honako eginkizun hauek izango ditu:
- EIOren Jardueren Programa diseinatzea, bere lantaldearekin koordinatuta; ospe eta ibilbide handiko zuzendariak proposatzea, koordinatzaileak zuzentzen ez dituen kontzertuak zuzentzeko; EIO kontzertuen programa artistikoa zehaztea; horiek egiteko datak eta espazio eszenikoak negoziatzea; eta egin beharreko joan-etorriak eta ostatuak koordinatzea.
  - Ikasleen irakaskuntza-jarraipenean laguntzea.
  - Hautaketa-entzunaldien diseinuan parte hartzea.



- Bere lantaldea osatuko duten irakasleak proposatzea.
- Egindako jarduerak baloratzeko txostenak egitea, eta egokitzat jotzen dituen hobekuntzak proposatzea.

#### **EIOren bi koordinatzaile ondoko:**

- EIOren koordinatzaile laguntzaileak Hezkuntza Sailaren titulartasuneko hiru kontserbatorioetako bateko irakasleak izango dira.
- Bi ikasturterako izendatuko dute karguan, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariaren ebazpen bidez, Hezkuntza Sailaren mendeko hiru MKPek aurkeztutako proposamenak entzun ondoren. Irakasleak ez badu behin betiko plazarik hiru MKPetako batean, izendapenak ikasturte bakar bateko indarraldia izango du.
- 3 orduko liberazioa izango du bakoitzak.
- EIOko koordinatzaile nagusiak agintzen dizkien eginkizunak hartuko dituzte beren gain.

#### **EIOko musika-zuzendaria:**

- Bi ikasturterako izendatuko dute karguan, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariaren ebazpen bidez, Hezkuntza Sailaren mendeko hiru MKPek aurkeztutako proposamenak entzun ondoren. Irakasleak ez badu behin betiko plazarik hiru MKPetako batean, izendapenak ikasturte bakar bateko indarraldia izango du.
- 3 orduko liberazioa izango du.
- Beren lanak proiektuaren arlo artistikoarekin lotutako zereginetan oinarrituko dira, hala nola errepertorioa aukeratzea eta entseguak eta kontzertuak zuzentzea.

Kargu horiek izendatzeak ez du inolako berariazko osagarririk jasotzeko eskubiderik ekarriko.

Gainera, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariaren alde aurreko baimenarekin, ospe handiko zuzendariak kontratatu ahal izango dira, bai eta atalkako lanerako errefortzuko irakasleak ere. Horretarako, EIOren koordinatzaile nagusiak proposamen arrazoitu bat helaraziko dio Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari. Nolanahi ere, Hezkuntza Sailaren mendeko hiru kontserbatorio profesionaletako irakasleen parte-hartzea lehenetsiko da, eta dedikazio horretarako beren lanaldiko ordu libreak erabili ahal izango dira, dedikazioa osatzeko

#### **4. AURREKONTU-ZUZKIDURA**

Erreferentzia gisa Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren II. kapituluaren "EIO" Euskadiko Ikasleen Orkestra kontzeptupean esleitutako aurrekontu-partidan



EIOri esleitutako aurreko kredituak hartuta, EIOren funtzionamendu-gastuetarako zenbatekoa 75.000 eurokoa izango da 2022ko eta 2023ko ekitaldi ekonomiko bakoitzerako.

EIOren kudeaketa ekonomikoa MKPetako baten zuzendaritzak hartuko du, hain zuzen ere, koordinatzaile nagusiaren MKParena.

Proiektu honen barruko jarduera-programa urtebetekoa izango da, eta Hezkuntza Saileko Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariak baimendu beharko du. Ondoren, bere titulartasuneko kontserbatorioetako bati funtsen igorpena egingo dio, eta edizio horretan partidaren organo kudeatzaile bihurtuko da.

Edizio bakoitzaren amaieran, kudeaketaz arduratzen den kontserbatorioak egindako gastuak agiri bidez justifikatu beharko dizkio Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari.

## 5. EIOREN FUNTZIONAMENDU-ARAUAK

- EIO Hezkuntza Sailaren mendeko hezkuntza-proiektua da, eta, beraz, babes horrek argi eta lehenetsunez agertu beharko du erabiltzen den kartel guztietan (kartelak, esku-programak). Koordinatzaile nagusiak kartelen ale bat bidaliko dio Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariari, bi hizkuntzetan behin betiko inprimatu aurretik.
  - Era berean, kontzertuen hasieran, Sailak emandako laguntza hori aipatuko da, eta, aldi berean, hezkuntza-proiektu horri buruzko azalpena emango da.
  - Ikasturte bakoitzeko uztaileko lehen hamabostaldian, koordinatzaile nagusiak dokumentazio hau bidaliko dio Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariari:
    - Garatutako jardueraren memoria, emaitzen balorazioa barne, eta gastuen eta frogagirien zerrenda jasotzen duen memoria ekonomikoa.
- Jarduera-memorian errefortzuko irakasle bakoitzaren txostena jasoko da, bere ardurapeko atal bakoitzak egindako lan partziala baloratuz, ikasleen balorazioen laburpena eta hobetzeko proposamenak.
- Hurrengo ikasturterako proiektua, proiektura bideratutako aurrekontu-partidaren zenbatekora egokitu beharreko aurrekontuarekin batera.
  - Hurrengo ikasturterako lan-egutegia, sarbide-proben, kontzentrazioen, entseguen eta kontzertuen datak jasoko dituen, bai eta beharrezko errefortzuko irakasleen zerrenda eta, hala badagokio, kanpoko zuzendarien proposamena ere.
- Ikasturtearen hasieran, koordinatzaileak, EIOko zuzendariarekin batera, bere proiektua aurkeztuko die hiru kontserbatorioetako klaustroei, kide guztiak jakinaren gainean egon daitezen eta irakasleen laguntza eskatu ahal izan dadin, proiektuaren jarraipena bermatzeko.
  - Programatutako jarduera erabat amaitu ondoren, ikasleek galdetegi bat beteko dute anonimoki, beren iritzi pertsonala adierazteko, adierazi nahi dituzten oharrak eginez.





- Kontserbatorioetako zuzendaritzek dokumentu bat bidaliko diote Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariari bidaliko diote dokumentu bat; dokumentu horretan, edizio bakoitzean egindako jarduerari buruz nabarmentzea egokitzen duten alderdi guztiak bilduko dituzte eta, batez ere, ikastetxeekin harreman zuzena duten alderdiak baloratuko dituzte.
- Sarbide-probak egin ondoren, koordinatzaile nagusiak aurkeztutako eta onartutako ikasleen zerrenda bidaliko dio Ikastetxe eta Plangintzako zuzendariari, bai eta eskatzen diren datu estatistikoak ere, horrek balora ditzan.
- Nazioko zein atzerriko lekualdaketetan eta bidaietan, EIO proiektuaren koordinatzaileak eta proiektuan parte hartzen duten ikasleak istripu- eta erantzukizun zibileko poliza baten onuradun izango dira, Eusko Jaurlaritzak izenpetuta, proiektua garatzen eta irauten duen bitartean.
- Bidaia horietan, eta ikasleei dagokienez, ikastetxetik kanpoko jarduera osagarrietarako ikasturte-hasierako ebazpenean zerrendatutako arau berak mantenduko dira, betiere kontuan hartuta ikasleen segurtasuna eta ongizatea direla bete beharreko lehen helburua.
- Koordinatzaile nagusiak, bere administrazio-lana egiteko, Hezkuntza Sailaren mendeko edozein kontserbatorioetako administrazio-langileen laguntza eskatu ahal izango du. Era berean, irakasle ez diren gainerako langileen laguntza eskatu ahal izango du. Kontserbatorioetako zuzendariak horren berri emango diete langile horiei.
- Gastuak ez handitzeko, eta kontuan hartuta proiektu hori hezkuntza-eremuan mantendu behar dela, ahal den neurrian, kontzertu eta entsegu guztiak kontserbatorioetako aretoetan edo hezkuntza-administrazioaren beste eraikin batzuetakoetan saiatuko dira egiten.
- Lokal horiek erabiltzen direnean, kontu handiz ibili beharko da horiek ez zikintzeko, ez hondatzeko edo haien segurtasuna arriskuan ez jartzeko. Kontserbatorioei materiala maileguan uzteko eskatzea beharrezkoa bada, berdin jokatuko da..
- Euskal folklorea zabaltzea sustatuko da; horretarako, ospe handiko musikariei musika-konponketak egitea eskatuko zaie. Kasu horretan, EAEko Administrazio Orokorrari lagako zaizkio jabetza intelektualaren eskubideak eta, bereziki, obra edo produktua erreproduzitzeko, banatzeko, jendaurrean komunikatzeko eta eraldatzeko eskubideak, bai eta ekonomikoki ustiatu daitezkeenak ere.

## 6. JABETZA INTELEKTUALA

Hezkuntza Sailak eskubidea izango du EIOren parte hartzen duten irakasleak eta ikasleak agertzen diren ikus-entzunezko materiala erabiltzeko (estatuan zein nazioartean) EIOren sustapenerako eta/edo publizitaterako, bai eta sailak egokitzen duten edozein kanpo-erabilera edo hedapenerako ere.

Ikasleak, edo haren legezko ordezkariak, dagokion baimen informatua sinatuko du, eta datuen tratamenduari buruzko adostasun esplizitua emango du, baldintza hauetan:



- EIOrekin lotutako ikaslearen irudia edo hari buruzko beste informazio batzuk argitaratzea, egindakoa zabaltzeko.
- EIOk antolatzen dituen jardueri eta ekitaldiei buruzko informazioa bidaltzea.
- EIOren irudiak edo bideoak, non ikaslea agertzen den, argitaratzea prentsako, irratiko eta telebistako komunikazio-kanalen bidez.
- Bideoak eta irudiak argitaratzea sare sozialetan eta EIOren webgunean, eta horiek ezabatzea eskatzen ez bada, gordeko dira.

Kapitulu honetan aipatzen diren prozeduretan aurkeztutako eskabideetan eta agirietan agertzen diren datu pertsonalak datuak tratatzeko "arduradun" gisa tratatuko ditu Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak. Datu pertsonalen tratamendu horren helburua izango da deialdi hau kudeatzea eta ebaztea. Helburu hori oinarritzen da interes publikoan eta horietan parte hartzeko eskabidean .

Horri dagokionez, honakoetan xedatutakoa aplikatuko da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzkoa eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena; Europako Parlamentuaren (EB) 2016/679 Erregelamendu Orokorra; Datu Pertsonalak babesteko eta Eskubide Digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa; Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Lege Organikoa; eta aplikatzekoa den gainerako araudia.

## **7. PROIEKTUAK AURKEZTEA ETA HAUTATZEA**

EIOri jarraipena emateko eta hura sendotzeko, proposamen berriak baloratu behar dira orain. Horretarako, deialdi hau egiten da, eta Hezkuntza Sailaren titulartasuneko hiru MKPetara zabaltzen da, honela:

1. Hezkuntza Sailaren titulartasuneko hiru MKPetako bateko irakasleek sostengatu beharko dute proiektu bakoitzaren aurkezpena, eta horietako kide batek bere gain hartuko du lantaldearen koordinazio orokorra.
2. Proiektuek bi ikasturteko iraupena izango dute (2021/22 eta 2022/23).
3. Hezkuntza Sailaren titulartasuneko hiru MKPetako bakoitzeko zuzendaritzek beren proposamenak bidaliko dizkiote Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariari.
4. Proiektu bakoitzak jarduera-programa bat garatu beharko du EIOraiko, ebazpen honen 2. puntuari adierazitako edukiaren arabera, eta aurreikusitako aurrekontuari egokitu beharko zaio.
5. Proiektuak aurkezteko epea 2021eko maiatzaren 26tik ekainaren 16ra bitartekoa izango da, biak barne.



## 6. Ebaluazioa eta hautaketa:

Hezkuntza Sailaren mendeko hiru MKPetako zuzendaritzen proposamena entzun ondoren, Ebaluazio Batzorde bat eratuko da, sei irakaslek osatua, MKPko bakoitzeko bina irakaslek. Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendaria edo hark eskuordetutako pertsona izango da lehendakaria. Batzorde horren enkargua izango da aurkeztutako proiektu bakoitza baloratzea eta azken hautaketarekin txosten bat egitea.

Garatu beharreko hezkuntza-proiektua hautatzeko, aurkeztutako proposamenak konparatuko dira, honako balorazio-irizpide hauen arabera:

- Proiektuaren interesa eta kalitatea.
- Proiektuaren koherentzia eta bideragarritasuna, aurkeztutako memoriaren arabera, planteatutako helburuekin, gauzatze-denborarekin eta baliabideekin.
- Hezkuntza-komunitatearen partaidetza-maila, prestakuntza-inpaktua zuzentzen zaien ikasleen kolektiboan eta gizarte-proiektzioa.

Hautaketa-batzordeak deialdia partzialki edo osorik hutsik utzi ahal izango du, baldin eta uste badu proposamenetako batek ere ez duela lortu nahi den gutxienezkoa.

## 8. DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO OINARRIZKOA

Zure datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: *Sarbide Probak eta izen-emateak*.

- **Arduraduna:** Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza, Hezkuntza Saila
- **Helburua:** Sarbide probak ikasketa profesionaletarako eta Goi-mailako Arte ikasketetarako. Izen-emateak eta lehiaketak.
- **Legitimazioa:** Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.
- **Hartzaileak:**
  - Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk: Musika kontserbatorioak, Dantzerti, Idarte.
- **Eskubideak:** Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.
- **Informazio osagarria:** Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua: [www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/145000-capa2-eu.shtml](http://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/145000-capa2-eu.shtml)

### Araudia:

- Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra ([www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa\\_dpd/eu\\_def/ad\\_juntos/RGPD-2016\\_0679\\_eu.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/ad_juntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf)).



- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.  
([www.boe.es/boe\\_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf](http://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf))

Vitoria-Gasteizen, 2021eko maiatzaren 24an

Eugenio Jiménez Ibáñez

**IKASTETXE ETA PLANGINTZAREN ZUZENDARIA**



euskadiko  
ikasleen  
orkestra